



LEZOKO BARATZE PARKEA: LURRAREN EMANKORTASUNA MANTENTZEKO GOMENDIO TEKNIKOAK

Donostia, 2018ko maiatza

SARRERA

Nekazaritza ekologikoarentzat baliabide garrantzitsua lurra da. Horregatik gu, baratzezaleak garenok, lurra zaintzeko eta babesteko erantzukizuna dugu eta ondorioz, egoki ongarrizatu eta erabili beharko genituzke lurrak. Ez bakarrik uzta ederrak jaso ahal izateko, etorkizunean beste batzuk ere lur biziez eta osasuntsuez baliatzen jarraitu daitezten. Honela, herritarrentzako balorezko errekurtso bat izaten jarraituko dute Baratze Parkeek.

Abelur-en laguntzarekin (<http://www.abelur.net/index.php?lang=eu>) parke guztietako lurren analisia egiten du Ekoguneak, bi urtetik behin, eta horien emaitzak eta nekazaritza ekologikoak finkatutako arauak kontutan edukita, Baratze Parke bakoitzari dagozkion **lur emankortasuna mantentzeko gomendio teknikoak ezartzen ditu.**



LURRAREN EMANKORTASUNA MANTENTZEKO GOMENDIO TEKNIKOAK

Lurraren ezaugarri fisiko-kimikoak (azken analisiak: 2017/11/02)

Lur analisiak egiteko orduan, lursail desberdinetako laginak hartu eta nahasten dira; beraz, jasotako emaitzak batzuetan bezala hartu behar dira.

- ✓ Lurraren testura: franko-buztintsua da. Ondorioz, lantzeko lur zaila eta neketsua izan daiteke, batik bat, hezetasun arazoak daudenean: hezetasun handia dagoenean putzuak sor daitezke, eta lehortetan berriz, lurra trinkotu daiteke.
- ✓ pH: 7,2. Neutralitate hurbilean dago, eta beraz, elikagai guztiak lurlean modu erabilgarrian topatuko dituzte landareek.
- ✓ Nitrogeno eta fosforo mailak oso altuak ditu lur honek.
- ✓ Potasio eta magnesio mailak altuak ere.
- ✓ Materia organikoa: oso maila altua du (%4,82).
- ✓ Guzti horregatik, lur honen emankortasuna ona dela esan daiteke.

Lurraren eboluzioa

2015ean egindako analisen emaitzak, azken egindakoekin konparatuz gero, ondorioztatu daiteke:

- ✓ Lurraren testura: buztin maila jaitsi da azken 2 urteotan, hondar maila igoz. Ondorioz, orain dela 2 urteko lurrarekin alderatuz, oraingoa aireztatuagoa dago eta lurra bera lantzea ere zertxobait errazagoa da.
- ✓ pH-a pasa da 6,5tik 7,2ra azken 2 urtetan. Karearen maila ere igo da nabarmen. Bi igoera hauen arrazoi bat karea gehiegi botatzearen ondorio bat izan daiteke.
- ✓ Elikagai guztien mailak igo dira nabarmen, eta bereziki nitrogenoarena, maila altuegi

bateraino iritsi arte. C/N erlazioa berriz oso bajua da, Sareko Baratze Parke guztien arteko baxuena alegia. Egoera honetan lurtean dagoen nitrogeno proportzio bat galtzea gerta daiteke, lurrazpira eta lurrazpiko uretara ihesi eginaz.

- ✓ Desoreka bat sortzen ari dela Lezoko Baratze Parkeko lurtean argi dago, eta honen arrazoiak bi hauetako bat izan daitezke (edo bien konbinazioa):
 - Lurrak gehiegi ongarriztatu izana.
 - Kare gehiegi botatu izana.
- ✓ Beraz, emankortasuna mantentzeko erreserba nahikoak ditu oraingoz lur honek, baina karbonoan aberatsak diren materialen gabezia dago.

Sasoian dagoenean lurra landu

Lur guztiak lantzeko garaian garrantzitsua bada lurra sasoian egotea, oraindik gehiago Lezoko Baratze Parkeko lurrak bezalako lur buztintsu eta astunetan. Beraz, hezetasun maila egokia edukitzea gomendatzen da lurra lantzeko orduan, ez hezeegi, ez lehorregi.

Lurrari karea bota?

Azken 2 urteotan lurtean sortutako desoreka kontutan edukita, eta egungo pHa ikusita, **lurrari kare gehiago EZ ematea gomendatzen da**, hurrengo lur-azterketaren emaitzak eduki arte gutxienez.

Hondarrak ongari bihurtu

Baratzean sortutako hondar organikoak konpostatu ondoren, baratzean erabiltzea ere gomendatzen da.

Ongarriztatze-gomendioak

- ✓ Beste edozein ongari botatzea baino, **Lezoko Baratze Parkeko lurrak karbonoan aberatsak diren materialak behar ditu**. Beraz, barazkien hondarrak, lastoa, zerrautsa, ...lurrarekin nahastea komeni da.
- ✓ Karbono ugari duten materialak ez ezik, **2018an beste ongarririk ez botatzea** komeni da, kontutan edukita azken analisien emaitzak.
- ✓ 2019an karbonoan aberatsak diren materialak lurrari emateaz gain, hurrengo puntutan azaltzen diren materialak eta dosiak aplikatzea gomendatzen da:
 - Atal honetan proposatzen diren ongarriztatze dosiak nekazaritza ekologikoak finkatutako arauak kontutan edukita kalkulatu dira. Gomendatutako dosiak baino gehiago erabiliz gero, inguruko lurrak eta urak kutsatu daitezke, baratzeko landareak kaltetu eta izurriak eta gaitzak gehiagotu. Guzti horregatik, **dosiak errespetatzea gomendatzen da**.
 - 3 aukera desberdin proposatzen dizkizuegu:
 1. Gipuzkoako Konposta hutsa erabiltzea.

2. Simaur hutsa erabiltzea (aukeran, 5 simaur-mota desberdin).
 3. Gipuzkoako Konposta eta simaurra erabiltzea, erdi eta erdi.
- ✓ Beharreko kopuruak karretila arradetan ematen dira hau da, Bellotaren karretila materialarekin iskineraino beteak, tontorrik egin gabe.



1. GIPIZKOAKO KONPOSTA HUTSEZ ONGARRIZTATU

Lur honen emankortasun mailagatik, Gipuzkoako Konposta urtero erabiltzea gomendatzen da 1,1 Kg/m² dosian, hurrengo lur-analisen emaitzak eduki arte gutxienez. Hauek izango lirateke urtero bota beharreko kopuruak, lursailaren azaleraren arabera:

LURSAILAREN AZALERA	ZENBAT KONPOST KARRETILA ARRADA/URTEAN?
30 m ²	1,1
40 m ²	1,5
60 m ²	2,2
90 m ²	3,3

2. SIMAUR HUTSEZ ONGARRIZTATU

Simaur-motaren arabera hauek dira urtero ongarriztatzeko gomendatzen diren dosiak:

LURSAILAREN AZALERA	ZENBAT SIMAUR KARRETILA ARRADA/URTEAN?				
	ZALDI SIMAURRA (2,5 kg/m ²)	BEHI SIMAURRA (5 kg/m ²)	TXERRI SIMAURRA (3,5 kg/m ²)	ARDI SIMAURRA (2 kg/m ²)	OILO SIMAURRA (1,1 kg/m ²)
30 m ²	2,2	4,3	3,0	1,7	1,0
40 m ²	2,9	5,8	4,0	2,3	1,3

60 m2	4,3	8,7	6,1	3,5	1,9
90 m2	6,5	13,0	9,1	5,2	2,9

3. GIPUZKOAKO KONPOSTA ETA SIMAURRAZ ONGARRIZTATU, ERDI ETA ERDI ERABILIZ

Gipuzkoako Konposta eta simaurra konbinatu nahi bada lursailak ongarriztatzeko, aurreko 2 ataletan zehaztutako dosien erdiak erabili beharko lirateke.

Beste produktuen erabilera

PRODUKTUAK EDO LANAK	DEBEKATUTA DAGO	ONARTUTA DAGO
Ongarriak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Sintesiko ongarri organiko guztiak (Europar saltzen diren guztiak) eta produktu kutsatuekin egindako konpostak (lastoak, simaurrak, pestizida eta herbizidekin tratatutako belar eta ongarri organikoak). ✓ Prozedura kimikoen bitartez lortutako ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fosfatatuak, potasikoak, magnesikoak eta abar). 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpostatutako simaurrak (konpostajea hartzidura aerobikoaren prozesutzat ulertuta), ongarri berdeak eta ongi deskonposatutako uzten hondarrak, eta kutsatu gabeko hondakinekin egindako konpostak. ✓ Jatorri naturaleko ongarri mineralak (txikitutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri txikituak, dolomitak eta abar).
Tratamendu fitosanitarioak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Intsektizida, fungizida eta akarizidak eta sintesi kimikotik eratorritako beste pestizida edo produktuak erabiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Substantzia natural mineral, begetal edo animalienetan oinarrituta sortutako fungizidak (Bordeleko salda, Borgoñako salda eta abar). ✓ Landareekin egindako produktuak (beratzeak, infusioak, egosketak, gernuak).
“Belar txarrak”	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Debebatuta dago edozein sintesiko herbizida kimiko erabiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Belar lehiakorren kontrolerako metodo biologikoak erabili daitezke (estaltzaile organikoak, eskuzko jorraia edo erdi eskuzkoa, zapalda sakoneko laborantza).
Hazi eta landareak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Genetikoki aldatutako edozein mota eta klaseko organismoak (transgenikoak). 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Nekazaritza biologikotik eratorritako barazki, sustrai, erraboil, tuberkulu eta hazien erabilera. ✓ Produktu horien erabilera, ohiko laborantzetatik etorri arren, produktu kimiko sintetikoekin landu ez badituzte.

Informazio gehiago

Zerbitzu honen inguruan informazio gehiago jaso nahi baduzu, mezu bat bidali ezazu helbide honetara: baratzeparkea@ekogunea.eus